



Esp. kodea: 2023DPRE0001

Gaia: 2024ko UDAL AURREKONTUA
Hasiera eguna: 2023/12/11

ZIURTAGIRIA

NIK, Ana Belen Hidalgo Corral andrea, ARRASATEKO UDAL AGURGARRIKO IDAZKARIAK,

ZIURTATZEN DUT:

Udaleko Osoko Bilkurak, 2023ko abenduaren 20an egindako bilkuran, besteak beste, erabaki hau hartu zuen:

“2024 URTEALDIRAKO UDAL AURREKONTUAK ONARTZEKO PROPOSAMENA (2023DPRE0001).

Udalbatzarra osatzen duten legezko 21 zinegotzietatik 19 bilkuran daudela (boto eskuordetu 1), Udalbatzarrak, aldeko 11 botorekin (EH BILDU eta ELKARREKIN ARRASATE), aurkako 8 botorekin (EAJ-PNV eta SOCIALISTAS VASCOS-EUSKAL SOZIALISTAK), Ogasun batzordearen diktamen hau onetsi eta akordio mailara jasotzen du:

“Udal gobernuak aurkeztutako 2024 ekitaldirako aurrekontuen proiektua aztertu eta eztabaidatze prozesua burutu eta gero, hasiera batean, informazio batzorde bakoitzari dagozkion partidak eta gorabehera nagusien azalpenak emanda, aipatu proiektua diktaminatu da Udaleko Osoko Bilkuran gaia jorratzeko.

Gastuen atalari dagokionez, proiektu horrek oinarria du udal sailek egindako eskaeretan, eta sarrerei dagokienez, udalak hartutako erabakietan gehi beste administrazioetatik jasotako informazioetan.

Ogasun batzordean aztertu da 2024 ekitaldirako aurrekontu proiektua, zenbateko hauekin:

2024ko EKITALDIRAKO AURREKONTU OROKORREN PROIEKTUA, jarri dena udalbatzarrak onartu dezan, **berrogeita bost milioi zazpi ehun eta berrogeita hamahiru mila, ehun eta hogeita hamazortzi euro eta hirurogeita zortzi zentimokoa da (45.753.138,68 €)**

Aipatutako proiektuaren azalpenak eman eta gero, Ogasun batzordean bozkatu da. Botazioaren emaitzaren arabera, batzordeak aldeko txostena ematen dio proiektuari, EH-BILDU eta PODEMOS-ARRASATE udal taldeetako ordezkarien aldeko botoekin, EAJ-PNV udal taldeko ordezkarien

Kodea	H23/17048	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2023/abe./21	CUDO	000.0055.AAAA09AX.M.Lf2y
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA09AXM.Lf2y		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			





Esp. kodea: 2023DPRE0001

Gaia: 2024ko UDAL AURREKONTUA
Hasiera eguna: 2023/12/11

abstentzioarekin eta PSE-EE udal taldeko ordezkariaren aurkako botoarekin, eta Udaleko Osoko Bilkurari proposatzen dio akordio hau hartzea:

1.- Hasiera batean onartzea 2024. EKITALDIKO AURREKONTU OROKORRA, barne hartzen dituen dokumentu guztiekin.

2.- Espedientea jende aurrean erakustea, interesdunek aztertu dezaten eta bidezkotzat jotako erreklamazioak aurkeztu ditzaten, 15 egun balioduneko epean, jende aurrean erakusteko, iragarkia argitaratzen denetik Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Espedientea behin betiko onartzea, jende aurrean erakusteko, aldi horretan erreklamaziorik jaso ezean aurrekontuaren aurka.”

Eta hala jasota geratzeko eta ondorio egokiak sortzeko, ziurtagiri hau egin eta sinatzen dut, Alkateak agindu eta ontzat emanik, Arrasaten, 2023ko abenduaren 21ean.

OE

Alkatea

Kodea	H23/17048	Udala	Arrasate/Mondragón
Data	2023/abe./21	CUDO	000.0055.AAAA09AX.M.Lf2y
URL	https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/55/AAAA09AXM.Lf2y		
Dokumentu honen balioa egiaztatzeko, sartu zaitez webgunean edo irakurri ezazu QR irudia			

